

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresarentzako, ekoizpen prozesua oso garrantzitsua izango da. Alde batetik, janari tradizionalen ekoizpena, familiako errezetetan oinarritutako produktu jakin batzuk prestatzea, hau da, jubilatuek sukaldatzea funtsezko jarduera izango da. Bestetik, kalitatezko produktuak hautatzea eta nekazari txiki eta lokalen lehengaiak erabiltzea gure enpresarentzako produktu osasuntsuak lortzeko, esaterako, osagai freskoak eta bertakoak erabiltzea. Prozesuaren dokumentazioa ere funtsezkoa da, ekoizpen prozesuaren pausoak dokumentatzea, elikagaiak nola prestatu, kontserbatu edo biltegitatu behar diren azaltzea, eta horien jatorria eta tradizioa ere kontuan hartzea.

Proiektuak aurre egin dezakeen arazo tipikoak eta konponbideak ere funtsezkoak dira, janariaren ekoizpenak ingurumenaren gaineko inpaktua izango du, eta horrekin lotutako arazoak konpontzea garrantzitsua da. Hori egiteko, produktuak banatzeko plastikozko ontzien murrizketa.

Sare sozialen eta komunitate digitalaren erabilera oso garrantzitsua izango da proiektuaren arrakasta lortzeko, Facebook, Instagram eta TikTok bezalako sare sozialetan promozioak eginez, etxeko zaporeei buruzko errezetarekin edota ekoizpenarekin lotutako eduki interesgarriak partekatuz... Horrek gure enpresaren berri ematen eta ikusgarritasuna handitzen lagunduko du. Online marketina eta aplikazioa ere erabiliko dugu proiektuaren edukiak eta produktuak modu digitalean eskaintzeko, janariaren errezetatik hasi eta produktuen salmentara iritsiz.